

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, gizartean ikusi ditugun beharrak edo arazoak aztertu ondoren, hauek asetzeko produktu bat sortu dugu eta atal honetan, produktua, bere itxura eta funtzionamentua azalduko dizuegu. Guk sortutako produktua aterki-ontzi elektriko bat da.

Hainbat etxe edo portaletan ez dago lekua aterkiak ireki eta bertan lehortzen uzteko, horregatik sartzerakoan dena bustita gelditzen da eta ondoren garbitu beharra dago, gainera, batzuetan ez dago lekua pasatzeko. Aterki-ontzi arrunt batean gordetzen badituzu aterkiak, baliteke hurrengo egunean aterkia hartzerakoan oraindik bustia egotea eta ur hori ez da ona aterkian uztea denbora askoz, aterkiaren hagaxkak hondatu daitezkelako. Gainera, ez da batere atsegina aterkiak gau osoa aterki-ontzi arrunt batean egon ondoren hurrengo goizean oraindik ere bustita egotea. Hainbat dendetako lurra ere asko bustitzen da, baina gure aterkiontzi elektrikoak aterkiak lehortu eta lehen bait lehen gordeta edukitzen lagunduko digu, horrela ez digu lekurik kenduko eta lurra ez da bustita egongo euria egiten duen bakoitzean.

Makinaren itxura edozein aterki-ontzirena izango da, baina berogailuez inguraturik egongo da. Berogailu hauek izango dira aterkiak lehortuko dituztenak, eta aterkiak berogailua ikutu ez dezan sare moduko bat edukiko du barnealdean, horrela aterkiak ez dute erretzeko arriskurik izango. Azkenik, behealdean ura gordetzen duen ontzi bat edukiko du, eta ur hori husteko ontzia atera, ura bota eta ontzia berriz bere tokian sartu beharko da. Diseinuaren aldetik, zilindro forma izango du, plastiko gogorrez egina izango da, 24cm-ko diametroa eta 64cm-ko altuera izango du argazkian ikusten den bezala eta beltza izango da. Kolore simple bat aukeratu dugu, izan ere, makinak ez du bere itxurarengatik atentzioa deitu behar, bere funtzioarengatik baizik. Baina norbaitek diseinu bereziren bat nahiko balu, web-gunetik gurekin kontaktuan jarri daiteke eta bere gustuko diseinua egingo dugu, beti ere prezioan eragina izango dute horrelako eraldaketek.



Tamainaren aldetik bere altuera beste edozein aterki-ontziren berdina izango da, hau da, aterki baten altuera eta aterkiaren kirtena kanpoaldean gelditu beharko da. Eta aterki txikiak goiko ertzean edukiko duen barra batean jarriko dira kirtena barran jarrita, eta, lehortu behar den aldea ontziaren barruan sartu beharko da.



Aterki-ontzi honen prezioa, aterki-ontzi arruntena baina altuagoa izango da. Izan ere, aterki-ontzi honek aterkiak lehortzen ditu, eta arrunt batek aterkia gordetzeko bakarrik balio du. Eta aterkiak plastikoz inguratzen duten makinak baino garestiagoa ere, hauek, aterkiak plastikozko poltsa batekin inguratzen dituzte, baino ez dituzte lehortzen gure makinak bezala, bakarrik lurra ez bustitzeko balio dutelako.

Beraz, gure ustez gure produktua beharrezkoa da hainbat arazo sahiesten dituelako, bai dendetan, etxeetan edo lokaletan, honela urarengatik erortzeko arrisku gutxiago egongo da eta ez da beharrezkoa izango lurra garbitzea egunero.